ERROMATAR ZIRKUA IKUSKIZUNAREN KONTRATAZIOA
CONTRATACIÓN DEL ESPECTACULO CIRCO ROMANO

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	OGASUN, ZERBITZU OROKOR ETA HIRI SUSTAPEN ARLOA / AREA DE HACIENDA, SERVICIOS GRALES. E IMPULSO CIUD
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2025ZAUN0066

1. XEDEA

Dokumentu honen bidez, Irungo Udalak LEGEND ESPECIALISTAS, S.L., enpresarekin, ikuskizun hau kontratatzeko interesa agertzen du:

ERROMATAR ZIRKUA

Egunak eta orduak: 2025eko uztailaren 12an (21:00 eta 23:00) eta 2025eko uztailaren 13an (goizean, zehazteke).
Lekua: San Juan plaza, z/g
Iraupena (gutxienekoa): 60 minutu

2. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN OBLIGAZIOAK

Obligazio hauek enpresa adjudikaziodunari aplikatuko zaizkio:

- Enpresa adjudikazioduna arduratuko da ikuskizuna emateaz eta haren funtzionamendu egokiaz, bai kalitateari dagokionez, bai Irungo Udalak ezarritako ordutegiak zorrotz betetzeari dagokionez.

- Enpresa adjudikaziodunaren ardura izango da kontratu honen xedean zehazten den ikuskizunaren komunikazio publikorako behar diren legezko baimen eta lizentzia guztiak eskatzea, jabetza intelektualaren eta egile-eskubideen araudiarekin bat etorriz. Udala libre geratuko da hirugarren batek hasitako edozein erreklamaziotatik.

- Enpresa adjudikaziodunak betebeharrak betetzeko behar adina langile kontratatuko ditu, eta zerga- eta lan-arloko indarreko xedapenak eta Gizarte Segurantzakoak eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoak bete beharko ditu, langile

1. OBJETO

Mediante el presente documento, el Ayuntamiento de Irun manifiesta su interés en contratar con la empresa LEGEND ESPECIALISTAS, S.L., el siguiente espectáculo:

CIRCO ROMANO

Fechas y horas: 12 de julio de 2025 (21:00 horas y 23:00 horas) y 13 de julio de 2025 (por la mañana, hora exacta a convenir)
Lugar: Plaza San Juan, s/n
Duración (mínima): 60 minutos

2. OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA

Las presentes obligaciones serán de aplicación a la empresa adjudicataria:

- La empresa adjudicataria se responsabilizará de la realización y buen funcionamiento del espectáculo, tanto en lo concerniente a su calidad, como al estricto cumplimiento de los horarios establecidos por el Ayuntamiento de Irun.

- La empresa adjudicataria se responsabilizará de solicitar todos los permisos legales, autorizaciones, y licencias pertinentes para la comunicación pública del espectáculo detallado en el objeto de este contrato, de conformidad con la normativa de propiedad intelectual y de derechos de autor, exonerando al Ayuntamiento de cualquier reclamación iniciada por un tercero.

- La empresa adjudicataria contratará al personal necesario para atender a sus obligaciones y deberán cumplir las disposiciones vigentes en materia fiscal y en materia laboral y de Seguridad Social y Prevención de Riesgos Laborales en

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: T127-VLJJ-L18K-Z0QA
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica Edurne Altxu Elizagaray DIRECTORA HACIENDA SERVICIOS GENERALES E IMPULSO DE CIUDAD (04/06/2025 09:34 CEST)

horiei dagokienez. Era berean, bere ardura izango da langileek segurtasuneko, higieneko eta lan-osasuneko indarreko araudia betetzen dutela bermatzea.

- Enpresa adjudikazioduna izango da erantzulea Irungo Udalak ikuskizuna garatzeko haien esku jarritako materialean eta ekipoetan eragin dezaketen edozein kalteren aurrean, eta, hondatuz gero, material eta ekipo horiek konpondu edo birjarri egin beharko dituzte, eta erantzule izango dira, halaber, enpresa adjudikazioduneko langileek gaizki manipulatzeagatik edo beren ekipo teknikoak egoera txarrean egoteagatik sortutako kalte-galeren aurrean.

- Enpresa adjudikaziodunaren kontura eta arriskura izango da ikuskizunak egiten diren esparruan edo perimetroan dauden bitartean beren ekipo tekniko eta/edo musikalak zaintzea eta horien segurtasuna bermatzea. Irungo Udalak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, horiek galdu, lapurtu, apurtu edo hondatzen badira.

- Enpresa adjudikaziodunak kaudimen aitortua duen aseguru-konpainia batekin hitzartu beharko ditu beren jardueraren kudeaketari lotutako ohiko arriskuak eta, bereziki, pertsonei eta gauzei eragindako kalteei, suteei eta lapurretei dagokienez erantzukizun zibiletik eratorritakoak estaltzeko beharrezko aseguru egokiak, 150.000 euroan gutxienez. Era berean, dagozkion primen ordainketa justifikatu beharko dute Irungo Udalaren aurrean, honek hala eskatzen badu.

- Enpresa adjudikaziodunak ekitaldiaren berri emateko behar diren materialak emango dizkiote Irungo Udalari (informazioa, argazkiak, kartelak…). Idatzizko eta ahozko komunikazio-elementuek gaztelaniaz eta euskaraz egon beharko dute.

3. IRUNGO UDALAREN OBLIGAZIOAK

Irungo Udalak honako obligazio hauek hartuko ditu bere gain plegu honen xedeko ikuskizunari dagokionez:

- Irungo Udalak konpromisoa hartzen du eskura dituen baliabide guztiak erabiliko dituela ikuskizunen arrakasta ziurtatzeko, lekuaren eta edukieraren ezaugarrien arabera. Horretarako, publizitatea jarriko du leku eta bitarteko

relación con dicho personal. Será asimismo responsable de que el personal cumpla la normativa en vigor en materia de seguridad, higiene y salud laboral.

- La empresa adjudicataria se responsabilizará de cualquier desperfecto que pudiesen ocasionar en el material y equipos puestos a su disposición por el Ayuntamiento de Irun para el desarrollo del espectáculo, así como a reponerlos o repararlos en caso de deterioro, incluyendo los daños y perjuicios causados por una deficiente manipulación de los mismos por el personal de la adjudicataria o por el deficiente estado de sus propios equipos técnicos.

- Será por cuenta y riesgo de la empresa adjudicataria la custodia y seguridad de sus propios equipos técnicos y/o musicales durante su permanencia en el recinto o perímetro en que se realicen los espectáculos. El Ayuntamiento de Irun declina todo tipo de responsabilidad en relación con su pérdida, robo, rotura o deterioro.

- La empresa adjudicataria quedará obligada a concertar con una compañía de seguros de reconocida solvencia, los seguros necesarios y adecuados para cubrir los riesgos típicos inherentes a la gestión de su actividad y, en particular, aquellos que se deriven de responsabilidad civil, referente a daños a personas y cosas, e incendio y robo, por un importe mínimo de 150.000 Euros. Asimismo, deberá justificar ante el Ayuntamiento de Irun si ésta lo solicita, el pago de las primas correspondientes.

- La empresa adjudicataria entregará al Ayuntamiento de Irun los materiales necesarios para la difusión del evento: información, fotografías, carteles, etcétera. Los elementos de comunicación escritos y orales, deberán ser tanto en castellano como en euskera.

3. OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE IRUN

El Ayuntamiento de Irun asumirá las siguientes obligaciones en relación con el espectáculo objeto del presente Pliego:

- El Ayuntamiento de Irun se compromete a emplear todos los medios a su alcance para asegurar el éxito de los espectáculos, de acuerdo a las características del lugar y aforo, colocando a tal efecto la publicidad en los emplazamientos y

egokietan, eta bere kontura izango da enpresa adjudikaziodunek ematen dioten material grafikoarekin egiten duen publizitate guztia. Enpresa esleipenduna ikuskizunak zabaldu eta horien publizitatea egin ahal izango du, aurretik Irungo Udalak oniritzia emanda.

medios adecuados, siendo a su cargo toda la publicidad que realice y con el material gráfico que la empresa adjudicataria le suministre. La empresa adjudicataria podrá difundir y publicitar los espectáculos previo visto bueno del Ayuntamiento de Irun.

4. IKUSKIZUNA ETETEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA

Ezinbesteko arrazoiengatik ikuskizuna egiterik ez badago, aldeek beste egun eta ordu bat erabakiko dute ikuskizuna egiteko. Ikuskizuna atzeratzerik ez badago, kontratua bi aldeen artean suntsiaraziko da, eta adjudikaziodunak kontura jasotako diru-kopurua itzuli beharko dio Irungo Udalari, edozein kalte-ordaini uko eginez.

Irungo Udalak, bere aldetik, kontratua ikuskizuna hasi baino lehen bertan behera utzi nahi badu, adjudikazioko zenbatekoaren % 100 ordaindu beharko dio adjudikaziodunari. Hala ere, ikuskizunaren etenaldia arrazoi meteorologikoengatik bada eta etenaldia adosten bada ikuskizunerako aurreikusitako eguna eta ordua baino 48 ordu lehenago, edo, hala badagokio, aurreikusitakoenen arteko lehen saioa baino 48 ordu lehenago, Irungo Udalak kontratuaren prezioaren % 50 ordainduko dio adjudikaziodunari.

Enpresa adjudikaziodunak ezin izango du, inola ere, beren aldetik bakarrik eten plegu honen xede diren ikuskizunak. Kontratua zuzenean edo zeharka adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik eteten bada (gaixotasuna, artisten edo taldekideen istripua hartutako konpromisoak betetzea eragozten duena), adjudikaziodunak ikuskizuna egiteko beste egun bat emango dio Irungo Udalari, honek egokitzat jotzen badu. Kasu horretan, indarrean jarraituko dute emanaldi berrirako kontratuan jasotako klausulek, emanaldiaren data izan ezik. Ikuskizuna atzeratzerik ez badago, kontratua bi aldeen artean suntsiaraziko da, eta adjudikaziodunak kontura jasotako diru-kopurua itzuli beharko dio Irungo Udalari, edozein kalte-ordaini uko eginez.

4. SUSPENSIÓN O CANCELACIÓN DEL ESPECTÁCULO

Si como consecuencia de causas de fuerza mayor el correspondiente espectáculo no pudiera ejecutarse, las partes decidirán una nueva fecha y hora para la realización del espectáculo. En caso de que no fuera posible el aplazamiento del espectáculo, el contrato se resolverá entre sus partes, viniendo obligada la adjudicataria a reintegrar al Ayuntamiento de Irun las cantidades que hubiera percibido a cuenta y renunciando a cualquier indemnización.

En el caso en que el Ayuntamiento de Irun quisiera, de manera unilateral, resolver el contrato antes del inicio del espectáculo, deberá abonar a la adjudicataria el 100% del importe de adjudicación. Ello no obstante, si la suspensión del espectáculo fuera consecuencia de causas meteorológicas y la suspensión se acordase con, al menos, 48 horas de antelación a la fecha y hora prevista para el espectáculo (o, en su caso, a la primera sesión de entre las previstas), el Ayuntamiento de Irun abonará a la adjudicataria el 50% del precio del contrato.

La empresa adjudicataria no podrá, en ningún caso, suspender unilateralmente los espectáculos objeto del presente Pliego. En caso de suspensión por causas directa o indirectamente imputables a la adjudicataria (e.g. enfermedad, accidente de los artistas o miembros de su grupo que impidan cumplir los compromisos adquiridos), la adjudicataria proporcionará al Ayuntamiento de Irun, si este lo considera oportuno, nueva fecha para la realización del espectáculo, en cuyo caso se mantendrá en vigor las cláusulas del correspondiente contrato para la nueva actuación, con excepción de la fecha de la misma. En caso de que no fuera posible el aplazamiento del espectáculo, el contrato se resolverá entre sus partes, viniendo obligada la adjudicataria a reintegrar al Ayuntamiento de Irun las cantidades que hubiera percibido a cuenta y renunciando a cualquier indemnización.

5. JURISDIKZIOA

Edozein auzi gertatuz gero, kontratazio-organoaren egoitza sozialeko epaitegiek ebatziko dute.

5. JURISDICCIÓN

Cualquier cuestión de carácter litigioso será resuelta por los Juzgados del domicilio social del órgano de contratación.